

Euskadiko Osasun Ituna

Balioak eta printzipioak

OTSAILA 2025


EUSKO JAURLARITZA

OSASUN SAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE SALUD



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE SALUD

Parte-hartzaileen zerrenda

(ordenamendu alfabetikoan)

- | ESKLEROSI ANIZKOITZAREN BIZKAIKO ELKARTEA (ADEMBI)
- | SUMAR KOALIZIOA
- | BIOLOGOEN ELKARGO OFIZIALA
- | ERIZAINEN ELKARGO OFIZIALA
- | FARMAZIALARIEN ELKARGO OFIZIALA
- | EUSKADIKO FISIOTERAPEUTEN ELKARGO OFIZIALA
- | OPTIKARIEN - OPTOMETRISTEN ELKARGO OFIZIALA
- | PSIKOLOGIAKO ELKARGO OFIZIALA
- | GIZARTE LANEKO ELKARGO OFIZIALAK
- | ALBAITARIEN ELKARGO OFIZIALA
- | CC.OO. COMISIONES OBRERAS
- | EUSKAL ENPRESAREN KONFEDERAKUNTZA (CONFEBASK)
- | EUSKADIKO SENDAGILEEN ELKARGO OFIZIALEN KONTSEILUA
- | DENTISTEN EUSKAL KONTSEILUA
- | EUSKAL HERRIA BILDU
- | EUSKO ALDERDI JELTZALEA – PARTIDO NACIONALISTA VASCO
- | BURU-GAIXOTASUNA DUTEN PERTSONA - ETA SENIDE-
ELKARTEEN EUSKADIKO FEDERAZIOA
- | LAB SINDIKATUA
- | MONDRAGON UNIBERTSITATEA
- | OSAKIDETZA
- | ALDERDI POPULARRA
- | EUSKADIKO ALDERDI SOZIALISTA – PSE
- | PAZIENTEEN ERAKUNDEEN PLATAFORMA
- | SATSE ERIZAINZAKO SINDIKATUA
- | SAE ERIZAINZAKO TEKNIKARIEN SINDIKATUA
- | EUSKADIKO SENDAGILEEN SINDIKATUA
- | UGT UNION GENERAL DE TRABAJADORES
- | UNIVERSIDAD DE DEUSTO – DEUSTUKO UNIBERTSITATEA
- | UNIVERSIDAD DEL PAIS VASCO / EUSKAL HERRIKO
UNIBERTSITATEA

Aurkibidea

01

Osasunaren definizioa

Orr. 7

02

Osasunerako eskubidea

Orr. 11

03

Osasun Sistemaren balioen eta printzipioen egungo arau-esparrua

Orr. 15

04

Misioa, Ikuspegia, Balioak eta Printzipioak aurkeztea

Orr. 19

05

Osasun Sistema Publikoaren balioak

- 5.1. Unibertsaltasuna
- 5.2. Elkartasuna
- 5.3. Ekitatea
- 5.4. Autonomia

Orr. 23

Osasun Sistema Publikoaren printzipioak

- 6.1.- Euskadiko Osasun Sistema Publikoak doakotasuna ezarriko du arretaren azken puntuan, osasun-politiken funtsezko zutabe gisa, unean-unean indarrean dagoen zerbitzu-zorroaren arabera.
- 6.2.- Euskadiko Osasun Sistema Publikoak pertsonetan eta biztanlerian oinarritutako osasun- eta ongizate-eredu bat lehenetsiko du, gaixotasunen aurrean izaera prediktiboa, prebentiboa eta aurreratua duena, eredu erreaktiboa izan beharrean.
- 6.3.- Euskadiko Osasun Sistema Publikoak pertsonen eta biztanleriaren osasunaren inguruan kultura parte-hartzailea eta erantzunkidetasuna sustatuko ditu.
- 6.4.- Euskadiko Osasun Sistema Publikoak enpatia, errespetua eta duintasuna sustatuko ditu harremanen oinarri gisa.
- 6.5.- Euskadiko Osasun Sistema Publikoak elkarlana eta talde-lana izango ditu gidari, sistemaren funtzionamendurako oinarri gisa.
- 6.6.- Euskadiko Osasun Sistema Publikoak kalitatea eta etengabeko hobekuntza hartuko ditu bere jardueraren antolaketa- eta motor-ardatz gisa.
- 6.7.- Euskadiko Osasun Sistema Publikoak une bakoitzean eskura dagoen ebidentziarik onenaren arabera erabakiko ditu bere estrategiak.
- 6.8.- Euskadiko Osasun Sistema Publikoak bere emaitzak ebaluatuko ditu erabiltzaileei eta herritarrei emandako balioaren adierazle bitartez.
- 6.9.- Euskadiko Osasun Sistema Publikoak laguntza-eredu integratua izango du, etengabeko arreta pertsonalizatua helburuarekin.
- 6.10.- Euskadiko Osasun Sistema Publikoak espezializazio estrategikoan oinarritutako antolamendu-ereduaren aldeko apustua egingo du, herritar guztien eskura egongo dena.
- 6.11.- Euskadiko Osasun Sistema Publikoak bere plangintza estrategikoa ezarriko du biztanleriaren beharren arabera.
- 6.12.- Euskadiko Osasun Sistema Publikoak bere estrategien garapenerako giltzarri gisa aitortuko ditu bere profesionalak eta langileak.
- 6.13.- Euskadiko Osasun Sistema Publikoak kategoria profesional bakoitzerako lege ezarritako eskumen eta eskuduntzen garapena bermatuko du, sistema efizientea eta malgua bilatze aldera.
- 6.14.- Euskadiko Osasun Sistema Publikoak jasangarritasunaren alde lan egingo du.
- 6.15.- Euskadiko Osasun Sistema Publikoak pixkanaka, malgutasunez eta modu jasangarrian ezarriko ditu eraldaketak.
- 6.16.- Euskadiko Osasun Sistema Publikoak kultura eta lidergo eraldatzaileak garatuko ditu, pertsonen zuzendutako sistema berritzaile eta jasangarri baten oinarri gisa.

1. Osasunaren definizioa

Gizarte-ongizatea ezartzea eta autonomia eta duintasun indibiduala erraztea, sustatzea eta ziurtatzea funtsezko gizarte-erronkak dira gaur egun. Osasunaren kontzeptua dinamikoa eta aldakorra izan da historian zehar; kontzeptu hori formulatzen den inguruneko kultura-, gizarte- eta ekonomia-arrazoiak direla eta. Osasuna ulertzeko era modernoa ofizializatu egin zen Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) —hau sortu ondoren (1946) eta indarrean sartu ondoren (1948)— osasunaren definizioa bere Konstituzioan sartu zuenean. Oro har onartzen den definizio horren arabera, “osasuna erabateko ongizate fisiko, mental eta sozialeko egoera da, eta ez gaixotasunik edo baliaezintasunik ez izatea soilik”. Definizio horrek lehen aldiz sustatu zuen, osasun fisikoaz eta mentalaz gain, gizarte-ongizatea osasunaren osagai integrala dela oro har; osasuna gizarte-ingurunearekin eta bizi- eta lan-baldintzekin estuki lotuta baitago.

Definizio hori kontzeptu global gisa errespetatuz, hainbat agentziak, taldek, batzordek eta ikertzailek, gerora, osasun-definizio operatiboagoak eta praktikoagoak hartzearen alde egin dute, eta beste kontzeptu osagarri batzuk gehitu dira. 1977an, OMEren “Osasuna guztiontzat 2000. urtean” Estrategia Globala onartu zenean, osasunaren kontzeptu pragmatiko bat onartu zen zeharka: bizitza sozial eta ekonomiko produktiboa izateko gaitasuna, estrategia horren funtsezko helburua zena.

1978an Alma Ataren Konferentzia egin zen, derrigorrezko erreferentzia lehen mailako arretaren sorreran eta osasunaren sustapenean. Alma Ataren Adierazpenaren puntu nagusiek honako hau ezartzen dute:

- Osasuna oinarritzko eskubidea da guztiontzat, eta eskuragarria izan behar du diskriminaziorik gabe.
- Osasun-arreta lehen mailako arretan oinarritu behar da; arreta hori irisgarria, eskuragarria eta komunitatearen premietara egokitua izan behar da.
- Komunitateak osasun-zerbitzuen plangintzan eta gauzatzean inplikaturik egon behar du, autokudeaketa eta erantzukizuna sustatuz.
- Gaixotasunak prebenitzearen garrantzia eta bizimodu osasungarriak sustatzea nabarmendu behar dira, ez soilik gaixotasunen tratamendua.
- Osasuna ezin da osasun-sektorearen bidez bakarrik lortu; sektore askoren lankidetzak behar da, hala nola hezkuntzarena, nekazaritzarena eta etxebizitzarena.
- Osasunaren hobekuntza oso lotuta dago garapen sozial eta ekonomikoarekin, eta onartzen du pobrezia eta hezkuntza bezalako faktoreek zuzenean eragiten dutela osasunean.

Ordutik, printzipio horiek gidatu dituzte mundu osoko osasun-politikak, eta oraindik ere garrantzitsuak dira osasun-sistema bidezkoagoak eta eraginkorragoak bilatzeko.

Hala ere, Osasuna modu operatiboan eta praktikoan definitzea ezinbestekoa izan zen osasuna mantentzeko eta hobetzeko politikak eta programak sortzeko, eta osasunak gaixotasunik eza baino ez duela esan nahi dioen nozio errotua nabarmen gainditzea lortu zuen. 1974an, Lalonde txostenak osasunaren paradigma bat proposatu zuen, non osasunaren baldintzatzaile sozialak sartzen ziren. Ottawako Gutunak —Osasuna Sustatzeari buruzko 1. Nazioarteko Konferentziakoa (1986)— adierazten du osasuna eguneroko bizitzaren eta ingurunearen testuinguruan sortzen dela, pertsonak bizi, maite, lan egin eta jolasten diren lekuan. Horrela, osasunaren ulermen aktiboa eta interaktiboa sartu zuten. Osasunaren sustapenaren helburua da gizarte-baldintzatzaileak jorratzen dituen ikuspegia, batetik, eta banakoak eta komunitatea osasunaren ikuspegi aktibo baterantz eta bizimodu osasungarriak hartzera motibatuzko eta bultzatzeko konpromisoa eta ebazpena, bestetik, konbinatzea.

.

2. Osasunerako eskubidea

“Osasunerako eskubidea” esaten zaio osasuna zaindu eta sustatzeko bizi-baldintzak izateko eskubideari. Eskubide hau giza eskubideen eta guk bizitza duina ulertzeko dugun moduaren funtsezko parte bat da. Osasun fisiko eta mentaleko maila gorena izateko eskubidea, erabateko esanahia emateko, ez da berria. Nazioartean, OMEren Konstituzioan lehen aldiz artikulatu zen (1948). 1948ko Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalak ere osasuna aipatzen du bizi-maila egokia izateko eskubidearen parte gisa (25. irudia). Osasunerako eskubidea giza eskubidetzat hartu zen berriz ere 1966ko Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Itunean.

Osasunerako eskubidea oinarritzko giza eskubidetzat hartzen da, pertsona guztiei bermatuz osasun-zerbitzu egokiak eta ongizate fisikoa, mentala eta soziala ahalbidetzen duten baldintzak izatea. Europako Estatuetakoko konstituzio-araudiek osasuna babesteko eskubidea jasotzen dute, hainbat formatutan, botere publikoen betebeharretako bat den aldetik.

3.

Osasun Sistemaren balioen eta
printzipioen egungo arau-esparrua

3. Osasun Sistemaren balioen eta printzipioen egungo arau-esparrua

Gure Osasun Sistema Publikoaren balio eta printzipio orokorrak, gaur egun, Osasunari buruzko 14/1986 Lege Orokorrean, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko 8/1997 Legean eta Euskadiko Osasun Publikoari buruzko 13/2023 Legean daude kokatuta.

4. Misioaren, ikuspegiaren, balioen eta printzipioen aurkezpena

Euskal Osasun Itunaren Mahaiari agindutako zereginen jarraipen gisa, Euskadiko Osasun Sistema Publikoari buruzko Ikuspegia, Balioak eta Printzipioak biltzen dituzten zenbait dokumentu idatzi, aztertu eta eztabaidatu dira.

Euskadiko Osasun Sistema Publikoa bezalako erakunde baten plangintza estrategikoan, misioaren, ikuspegiaren eta balioen kontzeptuak ezarri ohi dira.

Misioa erakundearen existentzia justifikatzen duen arrazoia da. Ildo horretan, Euskadiko Osasun Sistema Publikoaren misio gisa defini daiteke *“Euskadin osasun indibiduala eta kolektiboa sortzea, zaintzea eta sustatzea, herritarrek erdigunean jarritz, sistema planifikatuz, orientatuz eta egokituz, pertsona bakoitzaren zaintza-beharak bermatzeko”*.

Erakunde baten **ikuspegia** da lortu nahi den helburua. Euskadiko Osasun Sistema Publikoaren kasuan, ikuspegiaren asmo-edukiak izaera kolektiboko eta Itunaren Mahaiko kideek partekatutako jomugak eta asmoak adierazten ditu. Osasun Sistema Publikoaren ikuspegi gisa honako hau ezar liteke: *“Osasun-arretarako sistema publiko integral bat bultzatzea, eraldatzea eta indartzea, amaierarako balio indibidual eta kolektibora bideratua, kalitate-estandar berritzaile eta jasangarriekin, eta profesionalen eta pazienteen ahotsa nortasun-ikur izango duena”*.

Balioak erakunde baten erabakiak bideratzen dituzten oinarri etikoak, profesionalak eta komunitarioak dira. Inspiraziozko eta funtsezko edukia dute, ukaezinak diren kontzeptuak adieraziz. Beraz, Osasun Sistema Publikoaren balioak jarduerak gidatu behar dituzten nortasun-ezaugarriak dira. Balioak giza eskubideetan oinarritzen dira, eta osasun-sistema publiko bat dagoen lekuetan oso antzekoak izaten dira edozein pertsonarentzat. Joerak direnez, beti dago hobetzeko bidea. Balio horiek lortzeko, baldintza ideal horiek, esku-hartzeak behar dira, hau da, estrategiak behar dira, aldez aurretik adostutako oinarritzko arauen bidez gidatu beharko direnak, printzipio izenekoak.

Printzipioak Euskadiko Osasun Sistema Publikoa hobetzeko eta eraldatzeko helburua Euskal Osasun Itunaren esparruan garatzeko adostutako arauak dira. Printzipioak, balioak ez bezala, operazionalak dira. Ekintza-gidak dira, eta, beraz, fase estrategikoan erabiltzeko metodologia dira. Ez dira estrategiak eta ez dira unibertsalak; beraz, desberdinak izan daitezke balioak partekatzen diren beste leku batzuekin. Egungo fasean, printzipioek eduki espezifikokoagoak izan behar dituzte, eta, adostasuna lortu ondoren, Euskadiko Osasun Sistema Publikoari eskatu nahi dizkiogu. Sistemaren Printzipioak ezartzeak etorkizuneko ekintzen, esku-hartzeen eta estrategien diseinua bideratzen lagunduko du, Itunaren Mahaiaren lana erraztuz.

5. Osasun Sistema Publikoaren balioak

5. Osasun Sistema Publikoaren balioak

5.1. Unibertsaltasuna

Euskadiko Osasun Sistema Publikoa unibertsaltasunean oinarritzen da. Balio horrek esan nahi du pertsona guztiek dutela osasun-zerbitzu publiko guztietara iristeko eskubidea, inolako diskriminaziorik gabe. Estaldurak integrala izan behar du, eta bermatu behar du pertsona bakoitzak arreta egokia jaso dezakeela, edozein direla ere bere egoera ekonomikoa, kokapen geografikoa, gizarte-egoera, edozein motatako aniztasuna edo osasun-sistemarekin duen administrazio-harremana. Unibertsaltasunak esan nahi du osasuna ez dela pribilegio bat, baizik eta herritar guztientzat babesten eta bermatzen den oinarritzko eskubide bat. Osasun Sistema Publikoak bermatzen du pertsona guztiek, banaka edo taldean, arreta egokia jasotzen dutela hala nola sustapena, prebentzioa, diagnostikoa eta tratamendua, eta errehabilitazio-prozesuetan eta zainketa aringarrietan lagun egitea.

5.2.- Elkartasuna

Euskadiko Osasun Sistema Publikoa elkartasunean oinarritzen da, eta euskal gizartearen konpromiso kolektiboa sustatzen du, herritar guztiei ahalik eta osasun-eta ongizate-mailarik handiena bermatzeko. Horrek esan nahi du baliabide gehiago dituztenek gehiago lagundu behar dutela, eta egoera txarrean dauden pertsonak ere arreta sanitario eta gizarte-arreta jaso ahal izatea bermatzen lagundu behar dutela. Elkartasunak zerbitzuetarako sarbidean dauden desberdintasunak murrizteko mekanismo gisa jarduten du, kasu honetan osasunaren kasuan, arrazoi ekonomikoengatik inor baztertuta gera ez dadin ziurtatuz eta justizia soziala sustatuz. Sistema solidario batek finantzaketa nahikoa, orekatua eta progresiboa eskatzen du. Elkartasunaren balioak espazio komunitarioaren izaera ematen dio osasun-sistemari eta haren inguruneari, eta bertan ongizate kolektiboa gailentzen da desberdintasun indibidualen gainetik.

5.3.- Ekitatea

Euskadiko Osasun Sistema Publikoa ekitatearekiko konpromisoagatik bereizten da. Pertsonak arreta jaso behar dute beren behar espezifikoaren arabera (gaixotasuna, desgaitasuna, landatartasuna, aniztasuna, kultura-jatorria, etab.) Ekitateak,

osasunaren esparruan, saihestu, bidegabeak edo konpondu beharrekoak diren desberdintasunak zuzendu nahi ditu pertsona-taldeen artean, eta ziurtatu zaurgarritasun handiena duten kolektiboek baliabidetarako eta zerbitzuetarako sarbide normalizatua dutela. Ekitateak erabat etikoa den eredu gisa bereizten du osasun-sistema publikoa, giza premiak erdigunean jartzen dituen, sarbide justua eta gizarte kohesionatuagoa, erresilienteagoa eta osasuntsuagoa sustatuz. Balio horrek ideia hau indartzen du: osasuna ez da pribilegio bat, eskubide bat baizik, eta politikak eta esku-hartzeak beharturik daude behartsuenak babestera. Arretaren amaierako puntua doakoa izatea da.

5.4.- Autonomía

Euskadiko Osasun Sistema Publikoak autonomiaren printzipio etiko unibertsala hartzen du baliotzat. Herritarrek eskubidea dute beren osasunari eta behar dituzten zainketei buruzko erabaki informatuak hartzeko. Balio horrek berekin dakar erabakitzeko eskubidea aitortzeaz gain, pertsonak gaituta egon daitezkeen osasun-zainketak modu erantzukidean egiteko eskubidea ere aitortzea.

6. Osasun Sistema Publikoaren printzipioak

6.1. Euskadiko Osasun Sistema Publikoak doakotasuna ezarriko du arretaren azken puntuan, osasun-politiken funtsezko zutabe gisa, unean-unean indarrean dagoen zerbitzu-zorroaren arabera.

Osasun-zerbitzuek irisgarriak izan behar dute, kostu ekonomikorik gabe, pertsonentzat, behar dituztenean eta jasotzen dituztenean. Printzipio horrek ekitatea sustatzen du, osasun-zerbitzuetarako sarbidean pertsonen berdintasunean sakonduz, eta herritarrei beren zainketei heltzea ziurtatzen die, osasunerako eskubidearen berme gisa. Elkartasuna funtsezko balioetako bat dela onartzen duen osasun-eredu batek aukera ematen du, finantzaketa publiko egoki batean oinarrituta, osasun-zorroaren bidez sozialki beharrezko gisa definitutako zerbitzuei doan eusteko.

6.2. Euskadiko Osasun Sistema Publikoak lehentasuna emango dio pertsonetan eta populazioetan zentratutako izaera prediktiboa, prebentiboa eta aurrea hartzekoa duen osasun-eta ongizate-ereduari, ez ordea gaixotasunei aurre egiteko eredu erreaktibo bati.

Osasun-sistemak, One Health estrategiaren esparruan, osasunaren eremuan sustapena, iragarpen goiztiarra, prebentzioa eta aurrea hartzea sustatuko du.. Gaixotasunen arretaren osagarri, prebentzio-estrategietan eta osasuna sustatzeko estrategietan inbertitzea bultzatuko da, kalteberatasun handiena duten komunitateei arreta berezia eskainiz, desberdintasunak murriztuz eta ongizate integrala sustatuz. Osasunean faktore sozialek, ekonomikoek eta ingurumenek

eragina dutela onartuta, besteak beste, Osasun Sistema Publikoak lankidetzan jardungo du beste sektore batzuekin, osasunaren baldintzaile sozialei modu integralean heltzeko.

6.3. Euskadiko Osasun Sistema Publikoak pertsonen eta herrien osasunean parte hartzeko kultura eta erantzukidetasuna sustatuko ditu.

Lehen azaldutako autonomiaren balioaren hedapen gisa, Osasun Sistema Publikoan, pertsonak eta komunitateak partaide aktiboak izango dira beren osasunaren zaintzan. Pertsona bakoitzaren ahalduntzea sustatuko da, osasuntsu mantentzeko eta autozainketa bultzatuko da. Laguntza eta orientazioa emango zaie pertsoneri, beren osasunaren ekintzetan eta emaitzetan zeregin aktiboagoa har dezaten, erabaki informatuak eta arduratsuak hartuz.

Euskal herritarrek eskubidea dute osasun-zerbitzu eta gizarte-arreta seguruak, iraunkorrak eta kalitate handikoak izateko. Azpimarra egingo da baliabideen erabilera egokiari buruzko prestakuntzan eta herritarrek beren ongizatearen sustapenean rol aktiboa har dezaten. Lankidetzak eta erantzunkidetasunak, estrategiak eta erabaki-organoak diseinatzen parte hartzearekin batera, partaidetza komunitarioko modu berriak dakartza berekin, osasunaren arloko profesionalen eta langileen erakundeen rol berriak eta pazienteen erakundeen eta herritarren eginkizun aktiboa. Esparru horretan, pazienteen elkarteek eta erabiltzaileek funtsezko zeregina izango dute premia kolektiboak irudikatzeko, sarbidean oztopoak hautemateko eta osasun-arreta eta arreta-soziosanitarioa hobetzeko proposamenak egiteko.

6.4. Euskadiko Osasun Sistema Publikoak enpatia, errespetua eta duintasuna sustatuko ditu harremanen oinarri gisa.

Giza harremanak eta interakzioak enpatian, elkarrekiko errespetuan, tratu pertsonalizatuan eta duintasunean oinarrituko dira topaketa bakoitzean. Osasun-sistemako interakzio bakoitza pertsonen (pazienteak, profesionalak edo sistemako edozein eragile) behar eta esperientziekiko ulermenak eta sentsibilitateak markatuko du. Harreman guztiak ikuspegi-aniztasuna aitortzean eta baloratzean oinarrituko dira, maila guztietan berdintasunezko tratu duina sustatuz. Lehentasuna emango zaio pertsonen ongizate emozionalari eta fisikoari,

eta ziurtatuko da osasun-sistematikiko kontaktu bakoitza giza zaintzaren eta profesionalismoaren isla dela.

Printzipio horren arabera, Euskadiko Osasun Zerbitzu Publikoaren edozein mailatan, erabiltzaileek euskaraz artatuak izateko eskubidea bermatuta izan beharko dute; hau da, errespetuak, tratu pertsonalizatuak eta hurbiltasunak herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzea barne hartzen du.

Printzipio hori, profesionalek osasun-sistemen erabiltzaileekin duten harremanari ez ezik, langile guztien arteko interakzioari ere aplikatzen zaio, errespetuzko lan-giro eraikitzailea sustatuz, pertsonen zein sistemaren funtzionamenduari mesede egingo diena.

6.5. Euskadiko Osasun Sistema Publikoak lankidetzan eta talde-lana izango ditu gidari, sistemaren funtzionamendurako oinarri gisa.

Pertsonen parte-hartzean eta lankidetzan oinarritutako osasun-sistemaren ideia indartuko da. Erakundeek eta haien profesionalek diziplina anitzeko lana egingo dute, talde-ikuspegiarekin, kalitate handiko arreta eskaintzeko, pertsonen eta komunitateen ahalik eta arretarik onena jasotzen dutela bermatuz.

6.6. Euskadiko Osasun Sistema Publikoak bere gain hartuko ditu kalitatea eta etengabeko hobekuntza, bere jardueraren antolaketa-ardatz eta eragile gisa.

Euskadiko Osasun Sistema Publikoa kalitatearen printzipioaren inguruan antolatuko da, funtsezko zutabea baita asistentzia-ereduaren aldetak, berrikuntzak eta ikerketaren garapena gidatzeko.

Kalitatearen definizioak osagai hauek izango ditu une oro:

- Segurtasuna: Esku-hartze guztiak seguruak direla bermatzea, osasuna hobetu nahi den bitartean pertsonen kalterik ez eragiteko.
- Eraginkortasuna: Ezagutza zientifiko onenean oinarritutako zerbitzuak eskaintzea, zerbitzu horien onuradun izan daitezkeenei iristen zaizkiela ziurtatuz eta beharrezkoa ez den erabilera saihestuz adierazi gabeko kasuetan.

- **Berrikuntza:** Eraginkortasuna, segurtasuna, egokitasuna eta jasangarritasuna frogatu duten prozesu eta jarduera berritzaileetarako sarbidea bermatzea.
- **Ebaluazio jarraitua:** Baliozko adierazleak dituzten ekintzak eta jarduerak aztertzea, beharrezkoa den lekuan zuzenketak egin ahal izateko, bikaintasunik handiena bermatuz.
- **Pertsonarengan zentratuta:** Zerbitzuak pertsona bakoitzaren beharretara, lehenetasunetara eta balioetara egokitzea, pazienteak arretaren erdigunean jarritz.
- **Denbora-erantzuna:** Itxaronaldiak minimizatzea, bai erabiltzaileentzat, bai profesionalentzat, arreta-esperientzia eta eraginkortasun operatiboa hobetuz.
- **Efizientzia:** Baliabideen galera murriztea, denbora, ekipamendua, hornidurak eta energia barne, eta baliabide berritzaileak gehitzea sistemaren funtzionamendua optimizatzeko.
- **Etengabeko prestakuntza:** Profesionalen gaitasunak eta ahalmenak bermatzea, Europako estandarrei eta indarrean dauden araudiei jarraituz.
- **Eleaniztasuna:** Erabiltzaileen eta langileen hizkuntza-eskubideak bermatzea, hizkuntza ofizialei dagokienez. Kultura- edo aniztasun-arrazoiengatik hizkuntza-behar espezifikoak dituzten biztanleak daudela aintzat hartzea.

6.7. Euskadiko Osasun Sistema Publikoak une bakoitzean eskura dagoen ebidentziarik onenaren arabera erabakiko ditu bere estrategiak.

Osasun-estrategiak eskura dagoen ebidentzia zientifiko onenean oinarrituta diseinatu eta gauzatuko dira, ekintza bakoitza ezagutza eguneratuetan eta/edo emaitza egiaztatu eta fidagarrietan oinarrituta dagoela bermatuz. Printzipio horrek berretsi egiten du Euskadik zorroztasun zientifikoan oinarritutako osasun-sistemarekin duen konpromisoa, herritarrei kalitatea eta konfiantza bermatuko dieten erabaki informatuak hartzera bideratuta dagoena.

Politikak eta estrategiak ikerketa eta datu sendoek gidatuko dituzte, eta eraginkorrak, seguruak eta jasangarriak direla frogatzen duten esku-hartzeak lehenetsiko dituzte. Erabaki estrategikoak aldian-aldian berrikusiko dira, aurrerapen zientifiko berrienak txertatzeko eta biztanleriaren behar aldakorretara egokitzeko. Horrela, ikasteko gaitasuna duen eta gizartearekin batera eboluziorako prest dagoen antolaketa-eredu bat sustatuko da. Estrategia bakoitza metrika objektiboen bidez monitorizatu eta ebaluatuko da, aurreikusitako emaitzak lortzen

direla eta hobetzeko arloak identifikatzen direla bermatuz. Estrategia bakoitzaren atzean dagoen oinarri zientifikoa modu irekian komunikatuko da, profesionalen eta herritarren konfiantza eta konpromisoa indartuz.

Euskadik ezagutzaren sorkuntza bultzatuko du, osasun-ikerketa sustatuz, ebidentzia globalari lagunduz eta konponbideak testuinguru espezifikora egokituz. Ezagutza sortzea jarduera profesionalarekin eta irakaslearekin uztartuko da, eta etengabeko hobekuntzan lagunduko du.

Hartutako estrategiek eskura dagoen ebidentzia zientifikoa ez ezik, horien inpaktu soziala eta etikoa ere hartu beharko dute kontuan, pertsona eta komunitate guztien onurarako izango direla ziurtatuz, sistemaren balio eta printzipioen arabera.

6.8. Euskadiko Osasun Sistema Publikoak emaitzak ebaluatuko ditu erabiltzaileei eta herritarrei emandako balioaren adierazleen bidez.

Printzipio horren arabera, jarduera asistentzialaren adierazleetatik haratago sakondu behar da, osasunaren arloko prozesuak eta jarduerak ebaluatzeko eta aztertzeko iturri gisa. Emaidza klinikoak eta arreta-emaitezak pazienteen pertzepzioarekin eta jasotako zainketekiko gogobetetze-mailarekin integratu beharko dira, eta emaitzarik onenak bermatuko dira une bakoitzean eskuragarri dauden baliabideekin. Pertsonarengan zentratuagoa dagoen adierazle-eredu bat sustatuko da arreta-egituran baino, komunitatearen aurreko informazioaren gardentasuna erraztuz, baita erabiltzaileek eta haien elkarteek hobekuntza-arloak identifikatzen eta zerbitzuek pertsonen bizitzan duten benetako eragina islatzen duten adierazleak zehazten parte hartzea erraztuz ere.

Balioan oinarritutako adierazleek erabakiak hobeto hartzen lagunduko dute, eta, horretarako, emaitza onenak zer praktikek sortzen dituzten identifikatuko da, eta erabiltzaileei balio handiena gehitzen dietenak lehenetsiko dira. Bestalde, aldatu daitezkeen erabilgarritasun txikiko eremuak identifikatuko dituzte, prozesuen eraginkortasuna hobetzeko.

Balioan oinarritutako arretaren paradigmak erabiltzailea osasun-sistemaren orientazioaren erdigunean jartzen du, eta horrek esan nahi du erabiltzaileak modu planifikatuan, egituratuan, neurgarrian eta ebaluagarrian parte hartu behar duela.

6.9. Euskadiko Osasun Sistema Publikoak asistentzia-eredu integratu bat izango du etengabeko arreta pertsonalizatua izateko helburuarekin.

Euskadiko asistentzia-ereduaren birmoldaketaren oinarria Osasun Sistema Publikoaren zein gizarte-zerbitzuetako elementu guztien interkonezioa izango da eta helburu hauek izango ditu: proiektzio publiko bateratua, interdependentzia, lankidetzeta eta funtzionamendu integratua eta diziplinartekoa.

Printzipio horren helburua arreta-sistema kohesionatua sustatzea da. Hortaz, partaide bakoitzak pertsonen ongizate integralari lagunduko dio eta oztopoak eta zatiketak kenduko dira, arreta gizatiarragoa eta eraginkorragoa bermatu ahal izateko. Komunitatearentzat emaitza baliagarriak sortzeko diseinatutako jarduerak ereduak sustatu eta garatu beharko dira lehentasunez, bikoiztasunak eta arretarik gabeko eremuak sortzen dituzten egitura berriak sortu baino lehen. Gizarte-arreta, komunitate-arreta, lehen mailako arreta eta ospitale-arreta ntegratu egingo dira, pertsonen zainketak bermatuta izan ditzaten, pertsona bakoitzaren lehentasunen eta egoera berezien arabera, haien ongizate integrala sustatuz. Mailen arteko trantsizioa fluidoa eta planifikatua izango da, tratamenduetan etenak saihestuz eta pertsonen sisteman duten konfiantza indartuz. Arlo guztietako taldeek eta profesionalek modu bateratuan eta komunikatiboan lan egin beharko dute halaber, bikoiztasunak murriztuz eta arretaren kalitatea eta efizientzia maximizatuz. Horretarako, diziplinarteko taldeak sustatu beharko dira eta profesionalak prestatu, beren rol profesionalak egoera berrira egokitzeko.

Lehen mailako arreta erabiltzaileen sarbide-puntu ohikoena, irisgarriena eta etengabeko jarraipena egitekoa da, eta, ondorioz, ezinbesteko oinarrizko asistentzia-maila da; hala ere, lehen mailako arretaren erantzukizunak, zereginak eta antolamendua luze-zabal birdefinitu beharko dira. Arreta gehiago jarriko da tratamendu konplexu edo luzeen ondoren pertsonen jarraipena eta laguntza emateko inbertsioan, bai eta iraupen luzeko gaixotasun kronikoekin edota desgaitasunaren zaintzarekin lotutako tratamenduetan ere, susperraldi integrala eta iraunkorra bermatuz. Bizitzaren azken etapetan laguntza eta konpainia indartzeko inbertsioa bermatuko da, pertsonen eta haien familien duintasuna eta beharrak errespetatuz.

Arreta berezia eskainiko zaie sisteman zainketa informalak ematen dituzten pertsonen bai osasun-agente gisa zeregin berezia betetzen dutelako, baita jarduerak horrek pertsona horrentzat berariazko arrisku psikosozial eta sanitarioak dakartzalako ere.

6.10. Euskadiko Osasun Sistema Publikoaren apustua zera izango da, herritar guztientzat eskuragarri izango den espezializazio estrategikoan oinarritutako antolaketa-eredu bat izatea.

Euskadiko espezializazio eta konplexutasun handiko zerbitzuak modu estrategikoan antolatu ahal izango dira kalitatea, irisgarritasuna eta iraunkortasuna bermatzeko, eta, hortaz, teknologia eta erakunde arteko eta lurralde arteko lankidetzak aprobetxatuko dira, herritar guztientzat mesedegarri izan daitezten. Printzipio horrek espezializazioa, berrikuntza eta lankidetzak uztartzen dituen arreta-ereduarekiko konpromisoa indartzen du toki- eta eskualde-mailan eskaintzen den zuzeneko irisgarritasunarekin.

Printzipio horrek zera aitortzen du, toki maila ezin direla espezializazio eta konplexutasun handiko zerbitzu guztiak modu seguru eta eraginkorrean eskaini. Hortaz, puntu estrategikoetan kontzentratuko dira, beharrezkoak ez diren bikoiztasunak saihestuz. Eztabaida sor dezakeen arloa denez, ahalik eta gardentasun handienarekin tratatu beharko da, negoziazioan eta akordioan oinarrituta. Aldaketak edo egokitzapenak modu ireki eta parte-hartzailean egin beharko dira, teknikarien, profesionalen eta herritarren arteko konfiantza eta etengabeko elkarriketa sustatuz.

Digitalizazioari eta komunikazio-teknologiei esker, zerbitzu espezializatuak pertsonen eskura egon daitezke edonon, irisgarritasuna mugatzen duten muga geografikoak eta zailtasun funtzionalak murriztuz; hori guztia aurrez-aurreko arreta kaltetu gabe. Espezializazio eta konplexutasun handiko zerbitzuen antolakuntza egokitzeko, gero eta eskari handiagoak, ikerketaren aurrerapenak eta aukera teknologikoak hartuko dira kontuan, eta, beraz, prozesuak denbora-, teknologia- eta antolaketa-malgutasuna izan beharko du. Euskadiko Osasun Sistema Publikoak aliantzak sustatuko ditu beste eskualde batzuekin ezagutzak, baliabideak eta gaitasunak partekatzeko, eta herritarrek, beharrezkoa dutenean, zerbitzu onenak eskura izango dituztela ziurtatuko du.

6.11. Euskadiko Osasun Sistema Publikoak bere plangintza estrategikoa ezarriko du biztanleriaren beharren arabera.

Euskadiko Osasun Sistema Publikoaren baliabideen kokapen eta osaeraren helburua pertsonen benetako beharrak asetzea eta pertsonen eta herrien osasunean emaitza onenak lortzea izango da, epe luzeko iraunkortasuna eta ekitatea bermatuz. Osasun-sistemaren inbertsioak eta garapenak bideratzeko printzipioa zera izango da, funtzioa beti egituraren aurretik lehenestea, azpiegiturak eta baliabideak sistemaren behar eta helburu funtzionalekin lerrokatuta daudela bermatuz. Edozein azpiegitura diseinatu edo eraiki aurretik, argi eta garbi definituko dira zer funtzio bete behar dituen, eta ziurtatuko da dagozkien egiturek berariaz erantzungo dietela hautemandako beharrei.

Printzipio horrek osasun-sistemaren baliabideak kudeatzeko esparru bat ezartzen du, eta esparru hori herritarren behar dinamikoetara egokitzen da eta haien ongizatea ziurtatzen du epe luzera. Giza baliabideen, baliabide teknologikoen eta finantza-baliabideen banaketa biztanleriaren osasun- eta laguntza-premiei buruzko datu eguneratuetan oinarrituko da, eremu kalteberenei eta eskaera handiena dutenei lehentasuna emanez. Planifikatutako ikuspegi horri esker, dagozkion inbertsioak eta baliabideak kokatzeko eta esleitzeko erabakiak beharrezkoenak diren lekuetan egitea bermatuko da, irisgarritasunean desberdintasunak murrizten eta zerbitzuen kalitatea sustatzen lagunduz.

Plangintzaren helburua baliabideak optimizatzea izango da, osasunean, kalitatean eta bizi-amaieran emaitzarik onenak lortzeko; beraz, plangintzaren eragina eta eraginkortasuna etengabe ebaluatuko da. Ikuspegi horren bidez, alferrikako edo gaizki zuzendutako inbertsioak saihestuko dira, eta osasun-sistemara bideratutako baliabide bakoitzaren eraginkortasuna eta inpaktua maximizatuko dira. Sistemaren maila guztien artean koordinatuko da plangintza, bikoiztasunak ezabatuko dituen eta lurralde osoan estaldura egokia bermatuko duen lerrokatze estrategikoa ziurtatuz.

Egiturak denboran iraunkorrak eta garatzen jarraitzeko modukoak izateko diseinatuko dira, eta sistemaren funtzioen eta beharren aldaketen arabera doikuntzak egitea ahalbidetuko da.

6.12. Euskadiko Osasun Sistema Publikoak bere estrategien garapenaren giltzarri gisa aitortuko ditu bere profesionalak eta langileak.

Osasun-profesionalak sistemaren bihotza dira, eta funtsezko zeregina betetzen dute kalitatezko arreta bermatzeko orduan. Printzipio horrek berretsi egiten du Euskadiko Osasun Sistema Publikoak bere profesionalekin duen konpromisoa, profesional horien ongizatea funtsezkoa izango duen eredu bat sustatzen baitu arretaren bikaintasuna bermatzeko. Era berean, printzipio horrek profesional

horien garapena eta autonomia, sormena eta lankidetzaren sustatzen ditu, beren onena emateko eta pertsonen eta komunitateen beharrei modu seguruan, errespetuzkoan eta efizientean erantzuteko.

Profesionalen konpromisoa, ezagutza eta esperientzia aintzat hartu eta baloratuko duen kultura bultzatuko da, haiek osasun-sisteman duten funtsezko zeregina azpimarratuz.

Prestakuntza-, eguneratze- eta ikerketa-aukerak bermatuko dira, eta profesionalei aukera emango zaie aurrerapen zientifiko eta teknologikoen abangoardian egoteko, sistemak bikaintasunarekiko duen konpromiso gisa. Profesionalen belaunaldi berrientzako prestakuntza- eta irakaskuntza-iturri gisa, talentua eta esperientzia aprobetxatzea bultzatuko da, asistentzia-arloko lan-jardueren eta jardueren akademikoen arteko elkarrekintza erraztuz. Zenbait estrategia ezarriko dira hainbat arlotan bildutako praktika onenak, ikaskuntza eta esperientzia Euskadiko Osasun Sistema Publikoaren lurralde- eta sektore-eremu osoan zabaltzeko eta aprobetxatu daitezkeen.

Profesionalak ahaldundu egingo dira erabaki informatuak hartzeko, tokiko ekimenak gidatzeko eta irtenbide berritzaileak proposatzeko, indarrean dauden arau-esparruen arabera. Profesionalek eta haien ordezkariak rol aktiboa izango dute zerbitzuen plangintzan eta ebaluazioan, eta zuzenean lagunduko dute sistema eraginkorragoa eta humanoagoa diseinatzeko. Tokiko autonomia handiagoa sustatuko da, profesionalek beren komunitateen behar espezifikoetara egokitutako erabakiak hartu ahal izan ditzaten, sistemaren koherentzia eta kalitatea bermatuko dituen esparru politiko argi baten barruan. Zerbitzuen sormena eta egokitzapena bultzatuko dira, profesionalek arreta hobetuko duten eta tokiko erronkei erantzun diezaien ekimen berritzaileak lideratu ditzaten.

Dagozkion politikek lan-baldintza optimoak eta lan-ingurune seguru, errespetuzko eta orekatua bermatzen dituztela ziurtatzeko lan egingo da, langileen egonkortasuna eta beren lanarekiko gogobetetzea sustatuz, horrek guztiak herritarrentzako zerbitzu hobekiak ekarriko baititu.

Osasunaren arloko etorkizuneko profesionalek dagozkion diziplinetan prestakuntza izatea gizarte-premia bat da, eta, hortaz, Euskadiko Osasun Sistema Publikoak protagonismo handiz garatzen du. Horretarako, hainbat ekintza ahalbideatuko dira antolakuntzaren eta jardueren diseinurako, baliabideen plangintzarako eta emaitzen ebaluaziorako, eta, era berean, graduako eta graduondoko prestakuntzan egindako jardueraren adierazleak txertatuko dira, osasun-sistemaren barruan berriaz gauzatutako prestakuntza espezializatuaren parametroekin batera.

6.13. Euskadiko Osasun Sistema Publikoak kategoria profesional bakoitzerako lege ezarritako eskumen eta eskuduntzen garapena bermatuko du , sistema efizientea eta malgua bilatze aldera.

Euskadiko Osasun Sistema Publikoak lanbide-kategoria bakoitzak bere gaitasunen eta gaikuntzaren barruan jardutea sustatuko du, titulazio eta espezialitate bakoitzak lan-garapen optimoa izatea ziurtatuz, indarrean dagoen araudian aitortutako eskuduntza propioen barruan, eta hori guztia herritarrei ematen zaien arreta hobetzeko helburuarekin. Printzipio horrek giza baliabideen erabilera estrategikoa bermatzen du osasun-sisteman, profesional guztien gaitasunak maximizatuko dituen eta herritarrei kalitatezko arreta eskainiko dien eredu moderno eta iraunkorra sustatuz.

Talde-lanari esker, eraginkortasunean aurrera egin ahal izango da, eremu kritikoetan lan-kargak arinduko dira, eta zerbitzuetarako sarbidea eta herritarren osasunaren zaintzaren jarraitutasuna hobetuko dira.

Etengabeko prestakuntza eta garapen profesionala lehenetsiko dira, diziplina bakoitzak konfiantzaz eta eraginkortasunez jardun ahal izan dezan dagozkion eskumen-gaitasunen eta legezko eskuduntzen barruan.

Talde-laneko ingurune bat sustatuko da, diziplinarteko lankidetzaren bidez, non profesional bakoitzak bere kategoriako eta/edo espezialitateko onena emango duen, oztopo tradizionalak ezabatuz eta eskura dauden baliabideak optimizatuz.

Eredu horrek antolaketa-malgutasun handia izan beharko du, herritarren behar aldakorrei erantzuteko gaitasun handiagoa ahalbidetuz eta sistema erresilientea eta unean-unean sor daitezkeen baldintza berrietara egokitzeko modukoa izango dela ziurtatuz.

6.14. Euskadiko Osasun Sistema Publikoak iraunkortasuna landu eta zainduko du.

Osasun Sistema Publikoak jasangarritasuna (ekonomikoa, aldi baterakoa, ingurumenekoa, soziala) hartuko du printzipio gidaritzat, eta epe luzerako bideragarritasuna bermatuko duten ekintza eraginkor eta arinak ezartzeko konpromisoa hartuko du, zerbitzuen kalitatea eta sistemaren unibertsaltasun- eta ekitate-balioak arriskuan jarri gabe.

Etorkizunarekiko konpromiso-politikak eta -estrategiak lehenetsiko dira, sistemak egungo beharrei erantzun ahal izatea ziurtatzeko, funtsezko baliabideak datozen belaunaldientzat agortu gabe. Teknologia eta prozesu berritzaileak sartzea funtsezkoa izango da kostuak murrizteko, emaitzak hobetzeko eta osasun-sistemaren ingurumen-inpaktua murrizteko. Gizarte-, teknologia- eta ingurumen-aldaketetara egokitzeko prozesuek arinak izan beharko dute, eta osasun-egokitzapenekin batera gertatu beharko dute.

Denbora, materialak eta energia ahalik eta gutxien alferrik galtzeko neurriak ezartzea azkartuko da, inbertitutako baliabide bakoitzaren kudeaketa arduratsua garatuz.

Jasangarritasunaren inguruko sentsibilizazioa eta hezkuntza sustatuko dira, profesionalen, pazienteen eta, oro har, gizartearen parte-hartze aktiboaren bidez arretaren eta autozaintzaren arloko praktika iraunkorrak sustatuz.

6.15.- Euskadiko Osasun Sistema Publikoak modu progresibo, malgu eta iraunkorrean ezarriko ditu eraldaketa horiek.

Osasun Sistema Publikoaren egokitzapena epe ertain eta luze baterako prozesu planifikatu bat izango da, eta inplementazio hazkor batean oinarrituko da aldi baterako aurrerapenak ebaluatu ahal izateko, eta, horrela, emaitzak eta baliabideen fluxua bermatuko dira eskaria dagoen sektoreetan.

Printzipio horrek ikuspegi estrategiko eta malgua bermatzen du, eta, horri esker, osasun-sistema modu eraginkorrean egokitu daiteke, eta, aldi berean, prozesuaren etapa bakoitzean aurrerapen neurgarriak eta jasangarritasuna ziurtatu daitezke, beharrezkoak ez diren arriskuak saihestuz.

Estrategia berrien garapen eta ezarpen zuhurrak honako hauek izango ditu gidari:

- Etengabeko eraldaketa: Sistemaren erreformak modu mailakatuan edo hazkorrean egingo dira, etapa bakoitzak helburu orokorrari laguntzen diola ziurtatuz, sistemaren egonkortasuna arriskuan jarri gabe.
- Proba pilotuak egitea orokortzea egin aurretik: Kudeaketa operatiboko eta kudeaketako modu berritzaileak aktibatuko dira erabiltzaileekin, eta ingurune kontrolatuetan probatu eta ebaluatuko dira, haien ezarpen orokorra egin aurretik.
- Epe luzeko konpromiso politikoa: Inplementazioak laguntza politiko sendoa beharko du prozesu berritzaileen jarraitutasuna, koherentzia eta finantzaketa denboran zehar ziurtatzeko.

- Aldizkako ebaluazioa: Aldizka, ezarritako helburuetarantz egindako aurrerapenak ebaluatuko dira, ebidentzian oinarritutako doikuntzak ahalbidetuz eta estrategiak herritarren premiekin bat datozela ziurtatuz.
- Parte-hartze aktiboa: Aldaketak ezartzeko orduan, kudeatzaileen, teknikarien, profesionalen, pazienteen, haien erakundeen eta herritarren arteko lankidetzak aktiboa hartuko da oinarri, osasun-politikak eta -ekintzak formulatzeko eta kudeatzeko.
- Gardentasuna eta kontuak ematea: Emaitzak eta aurrerapenak aldizka jakinaraziko zaizkie inplikaturako eragile guztiei, eta eraldaketa-prozesuan konfiantza indartuko da.
- Informazioaren ustiapen digitala egingo da dimentsio soziala osasungintzan txertatzeko; horretarako, estali gabeko osasun-premien azterketa proaktiboa egingo da, osasun sistema estrategia pertsonalizatuetara zein erabiltzaile bakoitzarentzako estrategia eraginkorrenetara bideratu dadin.

6.16.- Euskadiko Osasun Sistema Publikoak kultura eta lidergo eraldatzaileak garatuko ditu, pertsonen zuzendutako sistema berritzaile eta jasangarri baten oinarri gisa.

Osasun-sistema eraginkor batek zera beharko du, erakunde-kultura sendo bat, eragileak eta onuradunak behar bezala identifikatzea, eta lidergo eraldatzaile bat, inplikaturako elementu guztiak inspiratu, motibatu eta mobilizatuko dituen, kalitatean eta pertsonengan oinarritutako eredu jasangarri bat lortzeko bidean. Printzipio honen bidez, eredugarritasunean, parte-hartzean, etengabeko elkarriketan, gardentasunean eta kontu-ematean oinarritutako gobernantza-ereduaren garrantzia sendotzen da, sistema publiko bat indartuko duen eredu bat.